



Ordezkoen Araudi eta Hezitzaile ordezkoen zerrenda berria



Bihar, **hilaren 10ean**, Haurreskolak Partzuergoko hezitzaile ordezkoen behin-betiko zerrenda argitaratuko da, 2017ko baremazio-birbaremazio prozesuaren ondoren.

Etzi, **hilaren 11n**, zerrenda hori eta Ordezkoen Araudi berria indarrean jarriko dira. Ordezkoen Araudi berria indarrean sartzeko 2 egun besterik ez direnean geratzen, **enpresak oraindik ez du dokumentu hau argitaratu**, nahiz eta ia hilabete bat igaro den onartu zenetik.

STEILASen ustez, langileen etorkizuna baldintzatzen duen dokumentazioa **langile guztien esku** utzi beharko luke enpresak, **onartu bezain pronto**.

Beste behin ere, **Haurreskolak Partzuergoak gure esku utzi du berea den lana**. Esteka [honetan](#) duzue eskuragarri Ordezkoen Araudi berria:

<http://steilas.eus/files/2018/04/2018-03-13-Haurreskolak-Partzuergoko-hezitzaileen-ordezkoen-araudia.pdf>

Zalantzarik izanez gero, jarri zaitezte gurekin kontaktuan.

Euskal Herrian, 2018ko apirilaren 9an.



www.steilas.eus

Araba 📞 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus